




BARREN

TOKIKOM

Sorginen gaua





★
4. SOLAIRUA
2 logela
2 bainugela
Sukalde hornitua
140.000 €

etxegain
BIZI GUNEA

**HIRU LOGELAKO AZKEN
ETXEBIZITZAK.**

10 metro koadroko terrazak
175.000 eurotik aurrera.
INFORMA ZAITEZ!



elgoibar

**AZKENEKO ETXEBIZITZA
LEHENENGO PORTALEAN**

ERAIKITZEN!

Terraza zabalak
etxebizitza guztietan.

Etxebizitzaren %30 salduta 2. atarian,
**Sukalde guztiz hornitua eta
horma-armairuak.**

Ez galdu Elgoibarren **obra berriko
etxebizitza batean bizitzeko aukera.**

Kalitatezko materialekin eraikitako
etxea, eta **zeure gustura jartzeko
aukera guztiak** eskaintzen dituena.



WWW.ETXEGAIN.COM

2 ETA 3 LOGELAKO ETXEBIZITZAK

IKUSPEGI ZABALAK DITUZTEN
TERRAZAK

**BEHEKO SOLAIRUAK, TXOKODUNAK ETA
GARAJERA SARBIDEAREKIN**

GARAJEA ETA TRASTELEKUA AUKERAN

**AZKENENGO BI
ETXEBIZITZA,
BEHEKO SOLAIRUAN,
TXOKODAREKIN ETA
GARAJERA SARBIDE
ZUZENAREKIN.
195.000
euroan hasita**



irudi birtual ez-pinkulenteak

GE grupo eibar
inmobiliaria

943 31 66 11

comercial@grupoeibar.com

San Frantzisko kalea 32, behea

689 66 08 01

OBRA FINANZIADA POR:

bankoa CAE
Groups
Crédit Agricole

**merezi
duzun
herria**



m

**MADDALEN
IRIARTE
OKINENA**

ehbildu

egiteko
prest.

maddalen
ZURE LEHENDAKARIA

JON BASURTO, C.D. Elgoibar

“Kluba erabat inplikaturata dago euskararekin, eta saiatu gara euskararako pausoak ematen”

◇ Nola eragin dio koronabirusak C.D. Elgoibarrí?

Martxan zeuden txapelketa guztiak bat-batean eten egin behar izan genituen, eta bi hilabeteetan guztiz geldirik egon gara. Federazioa bera ere nahiko galduta ibili

da guzti honekin, eta kolpe gogorra izan

da denontzat. Orain hasi gara martxan poliki-poliki. Txapelketa guztiak amaitutzat eman dituzte, eta datorren denboraldiari begira ari gara lanean.

◆ Ikusten al duzu aukerarik Euskaraldiari arreata eskaintzeko ala burua beste zeregin batzuetan duzue?

Bai, Euskaraldiko koordinatzailearekin jarri naiz harremanetan gai honi buruz hitz egiteko, eta berak emango dizkit azalpenak. Badaukagu interesa eta ikusiko dugu klubetik zer egiteko aukera daukagun. Kluba erabat inplikaturata dago euskararekin, eta saiatu gara euskararako pausoak ematen, baina egoera batzuetan zaila egiten zaigu dena euskaraz egitea. Karteletan eta kanpora begirako euskarrietan euskarari eman diogu lehentasuna eta gure artean euskaraz hitz egiteko ahalgina egiten dugu, baina eguneroko lanean zaila da joerak aldatzea. Bazkide askok ez dakite euskaraz, zuzendaritza batzordeko kide batzuek ere ez, eta ondorioz, batzarrak gaztelaniaz egin behar izaten ditugu. Entrenatzaile batzuek ere ez dakite euskaraz, eta askok euskaraz jakin arren ere, futboleko terminologia gaztelaniaz erabiltzen dute. Egin genituen entrenatzaileekin eta gurasoekin ikastaro batzuk hizkuntza ohi-turak aldatzeko, eta osatu genuen euskarazko terminologia biltzen zuen zerrenda ere, baina ohi-turak aldatzea zaila da, eta gehienok ohi-tuta gaude futbola gaztelaniaz ikustera.

◆ Zer iruditzen zaizkizu Euskaraldia moduko ekimenak klubaren eta herriaren ikuspegitik?

Tristeza da hau esatea, baina Euskaraldia bezalako ekimenak beharrezkoak dira, euskarak oraindik bultzada behar duelako. Nik uste dut Euskaraldiak bultzada garrantzitsua ematen diola euskarari, eta Euskaraldiak irauten duten bi aste horietan behintzat, euskara gehiago entzuten dela. Helburua izan beharko litzateke urte guztian zehar euskara gehiago eta normaltasunez erabiltzea, baina hori lortu bitartean, Euskaraldia bezalako ekintzak jarri behar dira martxan.



facebook.com/euskaraldiaelgoibar



twitter.com/EuskaraldiaElg2



instagram.com/euskaraldiaelgoibar



T.me/euskaraldiaelgoibar

AITOR URAIN, Sanlo Eskubaloí Taldea

“Jende bolumen handia daukagu eta badakigu gurean euskara erabiltzea garrantzitsua dela”

◇ Zer moduz zaudete? Nola eragin du koronabirusak Sanlon?

Kirol alorrari dagokionez ondo gaude. Dena gelditu zen bat-batean, eta horrela amaitu zen denboraldia. Talde batek ere ez du maila galdu, eta, aldiz, senior nesken taldea mailaz igo da. Federazioak berak ematen

ditu igoera batzuk eta guk eskaera egin genuen, eta onartu

egin digute, oso denboraldi ona egiten ari ginelako. Beste talde batzuk ere oso ondo ari ziren, Espainiako txapelketa bat baino gehiago jokatzeko aukera izango genuela iruditzen zait, baina dena geratu zenez, jokatu ezinda gelditu gara. Orain denboraldi berriari begira jarrita gaude, eta espero dugu seniorrak abuztu erdialderako normaltasunez entrenatzeko aukera izatea, eta gainerako taldeak ere irailean hasteko moduan egotea.

◆ Zein leku dauka euskarak Sanlon?

Sanlo klub euskalduna da, eta hasieratik horrela sortu zen. Zuzendaritzan sartu ginenean ere argi geneukan kirol talde euskalduna hartzen genuela eta euskara dela taldearen hizkuntza. Dokumentazio guztia euskaraz prestatzen dugu, webgunea ere euskaraz daukagu, sare sozialetan euskara da nagusi, eta gure arteko komunikazioan ere bai. Ni Sanloko whatsapp talde askotan nago, eta gure artean euskaraz egiten saiatzen gara. Norbaitek ez badu ulertzen, itzultzen diogu, baina euskara da nagusi. Entrenatzaileen artean atzerriar bat daukagu eta hark ez daki euskaraz, baina beste guztiek badakite, eta jokalarien artean ere ulertu behintzat denek egiten dute. Entrenamenduetan eta partidetan euskara da nagusi. Momentu konkretu batzuetan gaztelania ere entzuten da, gauza zehatzak azaltzeko gaztelaniara jotzen dutelako batzuek, baina gutxienekoak dira.

◆ Hartuko duzue parte Euskaraldian?

Egon gara harremanetan Euskaraldia taldekoekin eta nola parte hartuko dugun ez badakigu ere, argi daukagu parte hartuko dugula. Sanlo klub familiarra da, familia asko mugitzen ditugu, jende bolumen handia daukagu eta badakigu gurean euskara erabiltzea oso garrantzitsua dela herriarentzat. Euskaraldia bezalako ekimenak beharrezkoak dira, eta gure partetik ahal dugun guztia egiteko prest gaude.

ALEX SEGADE

Ikaslea



Ezohiko uda

Aurtengo uda bai izango dela arraroa. Distantzia soziala mantenduz, hondartzan eta igerilekuan txanda hartuz harategian eta arraindegian bezala, herrietako festarik gabe... Ohitu beharko gara, noski, ez dago beste aukerarik. Ezohiko uda honetan normaltasun berria deitzen zaion horretara ohitzea ez da batere erraza izango. Eta ez da erraza izango uda

erlaxatzeko eta atsedena hartzeko garaia delako, baina aurten ezin izango dugulako hori ere guztiz egin. Erne-erne egon beharko gara birusa ez harrapatzeko eta horrek ez du lagunduko behar bezala erlaxatzeko eta udaz gozatzeko. Herrialdetik, behintzat, mugitu gaitzke eta bigarren etxera joan. Nahiz eta normaltasun berrian egon, ez dut uste normaltasun handia egongo denik. Oraindik arazo ez da amaitu eta kontu handiz ibili behar dugu beste agerraldi potolo bat ez izateko. Jendeak badaki hori eta espero dut zentzuz jokatzeko. Gainera, uztailen atzeritarrak datoz eta nork daki zer gertatuko den. Ez dut uste uda atipikoa izango denik ditugun murrizke-

tagatik, baizik eta birusaren mehatxua hortxe izango dugulako eta herritarrak, orokorrean, beldurtuta daudelako. Baina, tira, ez dut nahi oso ezkorra izan. Ez du zertan ezer gertatu behar zentzuz eta arretaz jokatzeko badugu. Normaltasunera itzultzeko normaltasunez bizi behar dugu eta benetako normaltasun hori ez dugu lortuko beldur barik bizi arte. Horretarako betiko ohituretara bueltatzea da egin behar duguna. Ez dut esan nahi jasan duguna ahaztu behar dugunik, baina bai politikoki egunerokotasunera itzultzea, betiko ohiturak hartuz berriro ere eta bitzita normala eginez.

Inork ez du nahi berriro konfinamendura itzultzerik, eta hori gure esku dago.

“Inork ez du nahi berriro konfinamendura itzultzerik, eta hori gure esku dago”

 <p>BARREN</p> <p>ARGITARATZAILEA:</p>  <p>ELGOIBARKO IZARRA Euskarazko Topagunea</p>	<p>Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR 943 744 112</p> <p>Publizitatea: 943 743 704 barren.publi@elgoibarkoizarra.eus barren@elgoibarkoizarra.eus www.barren.eus</p> <p>BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA Zalaoa Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIA Amaia Arrizabalaga KOLABORATZAILEAK Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade INPRIMATEGIA Gertu Koop.E. TIRADA 4.885 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1138-1855</p>	<p>BABESLEA:</p>  <p>ELGOIBAR URDIA AYUNTAMIENTO</p> <p>LAGUNTZAILEAK:</p>  <p>MENDIARRO URDIA</p>  <p>Gipuzkoako Foru Aldundia</p>
--	--	---

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► PREST GAUDE MARTXARI EKITEKO!

Sarek *Izan Bidea* izeneko egitasmoa ipini du martxan. Gure asmoa da euskal preso eta iheslari politikoen egoerari irtenbidea emateko aurrerapausoak ematea. Horretarako, denon artean, 3.127.326 kilometro egitea da gure proposamena, Euskal Herriak dituen biztanle adina, alegia. Kilometro guzti hauek elkarbizitzaren eta bakearen alde, ibiltari sare erraldoia osatuz. Parte hartzeko egin behar den gauza bakarra kilometroak egin ondoren aplikazio bat bajatu eta bertan izena ematea da, kilometroak kontabilizatu ahal izateko.

Joango gara informatzen Elgoibarren antolatzen diren ekitaldien inguruan, baina, jadanik, parte har dezakegu, dela oinez, korrika, bizikletan, igerian, patinetan, patinetean, piraguan, eskalatzan... Bakarka, lagunartean edota SAREk edo bestelako elkarte edo taldeek antolatutako ekimenetan parte har daiteke. Ostiral honetan, hilak 26, hasiera

eman nahi diogu dinamika berri honi era kolektiboan. 76 urte dituen Sebas Etxaniz elgoibartarraren eta adineko preso en askatasuna eskatzeko, 20:00etan bilduko gara Kalegoen plazan eta elkarretaratze ibiltaria egingo dugu Maalako parkeraino. Beraz, ostiralean ikusiko dugu elkar!

Sare Elgoibar

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn en dozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: birraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztekeraz datorren eskutitzik argitaratuko.

aldaz
hortz klinikak

RPS233/13
Tel.: 943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22
Eibar
677 551 850

fisio&más
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea

Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 963 685
www.fisio-mas.com

RPS 183/12
Uzuri
optika audio

Elgoibar
Tel.: 943 740 359
Deba
Tel.: 943 192 192

FUB Fernando
Urizar
R.P.S.: 32/17 Barandiaran
Medikuntzan doktorea
Psikiatrian espezialista
Psikoterapia psikoanalitiko
Psikosomatika
Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)
Bailen kalea, 9, 1. ezk. (Bilbo)
furizarf@yahoo.com
615 715 404

**leku
eder**
hortz klinika
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Eparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

federópticos
ikus
RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

RPS 271/12
ainhoa
fisioterapia
Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar
943 531 953
669 565 745

Uztailaren 24ra arte eman daiteke izena 'Euskara ala Ezkara' jardunaldirako

Euskara ala Ezkara jardunaldiaren beste edizio bat antolatzen ari dira Elgoibarko Izarra eta Elgoibarko Udala elkarlanean urrirako, eta dagoeneko zabaldu dute izena emateko epea. *Euskara ala Ezkara Elgoibarren?* izango da aurtengo gaia, eta Elgoibarko euskalgintzaren eta kulturgintzaren diagnosi bateratua eta adostua egitea da helburua: Indarguneak eta ahulguneak identifikatu eta hobetzeko dauden aukerak aztertuko dituzte, besteak beste. Urriaren 3an izango da aurtengo jardunaldia Aita Agirre kulturgunean, eta 80 bat lagunentzako lekua aurreikusi dute. Antolatzaileek aurreratu dutenez, egun osoko jardunaldia izango da seguruenik. Interesatuek uztailaren 24a baino lehen eman beharko dute izena, ondorengo bide hauen bidez: elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus / 943 741 626 / euskara@elgoibar.eus / 943 744 366

Hamasei bikoterekin hasi dute Mendaroko padel txapelketa

Astlehenean hasi zuten Mendaroko padel txapelketa, hamasei bikoterekin. Antolatzaileek txapelketa mistoa izatea nahi zuten, eta hala egin zuten deialdia, baina emakumezko bakarrak eman du izena. Hamar bikote mendaroarrak dira, eta gainerakoak bai-larako herrietakoak. Astelehen, eguen eta zapatuetan jokatu dituzte partidak, eta finala uztailaren 25ean izango da, Santio Egunean. Aurten santanarik egongo ez denez, jaien ordezkotza moduan antolatu dute.



Elgoibartarrak eta mendaroarrak Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako zerrendetan

Argitaratu dituzte Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan parte hartuko duten hautagaien zerrendak, eta horien artean Elgoibarko eta Mendaroko ordezkariak ere badaude: Euzko Alderdi Jeltzalearen (EAJ) Gipuzkoako zerrendan bi elgoibartar eta mendaroar bat ageri dira. Bosgarren postuan dago Irune Berasaluze Lazkano mendaroarra. Orain lau urteko hauteskundeetan ere postu berean aurkeztu zuten Berasaluze eta legebiltzarkide izan da legealdi honetan. Maialen Gurrutxaga Uranga (Elgoibar, 1992), bestalde, Eusko Legebiltzarrean kiderik gazteena izan da amaitzean den legegintzaldian, eta oraingoan zortzigarren postuan aurkeztuko du EAjk. Ane Beitia Arriola Elgoibarko alkatea hamabosgarrena da zerrendan. Elkarrekin-Podemos-IU koalizioak aurkeztu duen Gipuzkoako zerrendan, bestalde, hamaseigarren lekuan joango da Evaristo Rodriguez Rabano, Elgoibarko Udaleko zinegotzia.

Landa bideak konpontzen dihardute Mendaron

Mendaroko Udalak urte hasieran aurkeztu zituen 2020an nekazal bideak konpontzeko lau proiektu, eta jakitera eman du horietako hiru eginak daudela. Laugarrena, ekaina amaiera alderako hasiko dute, ondo bidean. Nekazal bideetan egindako lanek 63.712,25 euroko aurrekontua dute guztira, B.E.Z. barne. Urtarrilean Ertarte baserriko bidean luizi bat gertatu zen eta harri lubeta egin zuten. Lurjautsia konpontzeko lanak hasi zituen Udalak. Ekainean Sahatzu bideko zuloa konpondu zuten, harrobiaren ondoren, lurra behera eginda zegoelako arketa edo kutxatila baten parean eta urak zeramatzen hodia hautsita zegoelako. Hilabete berdinean Goikolako baserriko bidegurutzeko solera ere konpondu zuten. Hormigoizko zorua behera eginda zegoen eta inguruko zorua zati handi bat airean, euri-urek azpiko materiala eramango zutelako ziurrenik.

Laugarren proiektua Agerre Haundi eta Agerre Txikirako bidea konpontzea da. Bideak malda handia du, eta hormigoiz eginda dago. Puntu batzuetan oso zartatua dago eta beste askotan labaina, batez ere euria ari duenean edo bustita dagoenean. Hormigoizko bidea aglomeratu geruzen bidez estaltzea da helburua, eta goian porlanezko bidearekin lotzea, irristakortasuna ahal den heinean kentzeko eta segurtasuna bermatzeko.

Elgoibarko Udalak entitate gisa parte hartuko du Euskaraldiaren bigarren edizioan eta egitasmoa sustatzeko adierazpena onartu du

Elgoibarko udal ordezkariak aho batez onartu zuten eguazteneko Osoko Bilkuran Euskaraldiaren adierazpen bateratua, euskararen erabilera indartzeko antolatuta duten Euskaraldiaren bigarren edizioa babesteko. Bertan adierazten duten moduan, udal barrura begira ekimena zabalteko konpromisoa hartu du Udalak, eta baita herrira begira sustatzaile lanetan aritzeko ere. Bigarren edizioan norbanakoez gain, entitateek ere parte hartu ahal izango dute, eta Elgoibarko Udalak ere, entitate gisa, parte hartuko du. Honako konpromisoak hartu ditu Udalak:



Ekimenaren sustatzaile izango da Elgoibarko Euskaraldia taldearekin batera. Horrenbestez, erantzukizunez eta eredugarritasunez jokatzeko konpromisoa hartzen du. Ariguneak identifikatu eta bultzatuko ditu, eta udalkide, herritar eta herriko eragileei dei egiten die urtean zehar izango diren prestaketa-lanetan parte har dezaten *ahobizi* eta *belarriprest* gisa eta ariguneetan parte har dezaten. Ordezkari politikoen egiteko nagusia izango da, bestalde, Udalean eta Udalaren ardurapeko entitateetan ekimena zabaltea. Horrenbestez, ekimen honetan ahalik eta *arigune*, eta *ahobizi* eta *belarriprest* gehien aktibatzekeko urratsak emango dituzte, arduradun politikoa nahiz langileak izan. Azkenik, Udalak neurriak hartuko ditu hizkuntza-praktika horiek posible izan daitezen eta praktika horiei etorkizunean eutsi ahal izateko. Adierazpen osoa www.elgoibar.eus webgunean irakur daiteke.

Elgoibarko Udal Liburutegiko hainbat gela zabaldu dituzte

Normaltasunerako bidean, erabilera anitzeko gelak eta helduen liburutegia zabaldu dituzte Elgoibarren, baina edukiera mugatuarekin. Horrez gain, momentuz apaletako liburuak ezingo ditu norberak hartu, eta mostradorean eskatu beharko dira. Derrigorrezkoak izango dira egoera berriak eskatzen dituen 1,5 metroko distantzia soziala zaintzea, maskara erabiltzea eta eskuak garbitzea. Udal liburutegiak, bestalde, udako ordutegia izango du ekainaren 29tik aurrera: 8:00etatik 14:00etara.

Agortu dira Jon Gurrutxaga eta Urbil Artolaren kontzerturako sarrerak



Elgoibarko Makina-Erremintaren Museoa antolatuta, kontzertua emango dute gaur iluntzean Jon Gurrutxagak eta Urbil Artolak, baina antolatzaileek jakinarazi dute sarrerak agortu direla dagoeneko. Koronabirusaren eraginez, 35 laguneko muga jarri zuten, eta antolatzaileen harridurarako bi egunetan saldu dituzte sarrera guztiak. Oraindik ere eskaera dagoela ikusita, bigarren kontzertu baterako aukera aztertzen ari dira irailerako. Interesa duten herritarren 943 748 456 zenbakira deitu edo museoa@museoa.eus helbidera idatzi dezakete eta izena hartuko diete.

Pedro Mugurutza etorbideari izena aldatzea eskatzeko mozioa aurkeztu du EH Bilduk osoko bilkuran, baina ez du aurrera egin

Elgoibarko EH Bildu kezkatuta dago Udalak oraindik ez dituelako hasi Pedro Mugurutza etorbidearen izena aldatzeko trukeak, eta horren aldeko mozioa aurkeztu zuen eguazteneko osoko bilkuran. Kaleari izena aldatzearen aldeko mozioa aho batez onartu zuten duela zazpi hilabete osoko bilkuran, baina EHBilduk dio oraindik ez dela horretarako pausorik eman. Elgoibarko ezker subiranistaren ustez, 2020. urtean eta sinbolo frankista guztiak ezabatzea agintzen duen Memoria Historikoaren Legea onartu zenetik 13 urte igaro direnean, Elgoibarren Pedro Mugurutza "frankistak" oraindik kalea izatea onartezina da. Mugurutza Frankismoaren erreferentziako arkitektoa izan zen eta Gorte frankisketan diputatua izan zela dio EH Bilduk. Bere lanen artean dago, besteak beste, Erorien Harana. Muruguza Madrilen jaio zen, nahiz eta bere familia Elgoibarkoa izan. Elgoibarko EH Bilduk dio beharrezkoa dela frankismoari erreferentzia egiten dion guztia gure udalerritik kentzea eta uste du hasiera ona izango litzatekeela kale horri izena aldatzea. Izen bat ere proposatu dute: Martxoak 8 etorbidea, Emakumearen Eguneko mobilizazioetan sortu zen herri-proposamenarekin bat eginez. EH Bilduk gogorarazi du beharrezkoa dela kalearen izena aldatzeko mekanismoak aktibatzea, eta gaia Bizikidetzak Batzordean lantzen hasteko eskatu du. Halaber, izen berriaren inguruan proposamenak jasotzeko edo ekarpenak egiteko, prozedura irekitzea eskatu du. Udalbatzarrak ez zuen onartu mozioa: EHBilduren aldeko sei boto eta EAJen kontrako 9 jaso zituen mozioak. Elkarrekin Podemos abstenitu egin zen. EAJk "elektoralistatza" jo zuen mozioa, eta "nahasmena sortzeko gaitasun berezia" izatea leporatu zion EHBilduri. Azaldu zuen Udalak hasita duela ikur frankistak kentzeko prozesua, baina gaineratu zuen Pedro Mugurutza frankista zenik ez dagoela frogatuta. Hala ere, herritarrei galdetzeko prozesua martxan jarriko dute udazkenean, eta herritarrek hala nahi badute, kalearen izena aldatzeko proposamena aztertzeko prest agertu da.



Loreak taldekoek maskarak salduko dituzte astelehen eta eguenetan, Kalegoen plazan



Loreak taldeko emakumeek eurek eginiko maskarak salduko dituzte astelehen eta eguenetan Kalegoen plazan, 10:00etatik 13:00etara. Maroko, Pakistan eta Nikaraguako emakumeak biltzen ditu Loreak taldeak, eta astean behin elkartzen dira josteko. Konfinamenduan bakoitzak bere etxean egin zituen maskarak, talde zaurgarrienei banatzeko, eta Sartu-Zabaltzen kooperatibaren bitartez, 800 maskara inguru banatu dituzte dagoeneko. Maskarak egiteko material pixka bat gelditu zitzaizen soberan, eta horrekin egindakoak dira oran plazan salgai jarri dituztenak. Lortzen duten dirua Loreak elkartearentzat izango da.

Whatsapp taldea sortu du Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak elkarteko berriak zabaltzeko

Elgoibarko Jubilatuen Biltokiko zuzendaritzak whatsapp talde bat sortu du bazkideei informazioa bidaltzeko. Bazkideei eskatu diete 688 742 013 zenbakira mezu bat bidaltzeko, whatsapp bidez norberaren bazkide zenbakia zehaztuta.

Elgoibarko auzoetako zaindarien egunetan ez da mezarik egongo

COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioz, Elgoibarko Parrokiako Batzordeak erabaki du aurten ez dutela liturgia-ekitaldirik ospatuko auzoetako zaindarien jaietan. Horren ordez, parrokiari ospatzen den mezan, zaindari bakoitzak gogoratuko dute zaindariaren egunean meza tokatzen bada, eta bestela, igande hurbilenean.

Ezohiko egoeran jokatu zituzten Emakume Master Cup pilota txapelketako finalerdiak domekan ikastolako frontoian

Alarma egoera bukatu eta normaltasun berrian sartzeaz bat hasi dira kultur eta kirol ekitaldiak martxan jartzen berriro, eta horren erakusgarri izan zen domekan Elgoibarren jokatu zuten pilota partida. Elgoibar Ikastolako frontoian jokatu zituzten Emakume Master Cup pilota txapelketako bi finalerdiak, eta azken orduko aldaketa baten ondorioz, pilotazaleek partida ikustera joateko aukera izan zuten. Hasiera batean atek itxita jokatzeak baziren ere, segurtasun neurriak hartuta jokatzea erabaki zuten antolatzaileek: besteak beste, aforoa 163 lagunetara mugatu zuten. Guztira 160 pilotazale batu ziren ikastolako frontoian, eta guztiei tenperatura ere hartu zieten sarreran. Maskara jantzita eta eserita egon behar izan zuten denek pilotalekuan.



Bi partida, bi lehia

Lehiari dagokionez, lehen finalerdia parekatua izan zen eta bi tantoko aldearekin irabazi zuten partida Antzuolako Galeano ahizpek. Ainhoa R. de Infante eta Amaia Jaka izan zituzten aurkari, eta 18 eta 16 izan zen azken emaitza.

Bigarren finalerdia desberdina izan zen. Iera Agirre eta Maite Ruiz de Larramendik hiru tantoan laga zituzten Irantxu Etxebeste eta Ane Urkizu. Hortaz, Nagore eta Leire Galeano vs Agirre-Ruiz de Larramendi izango da finaleko norgehiagoka. Irungo Uranzu pilotalekuan jokatuko dute finala, domekan.

Sanloko senior emakumezkoen Lauko taldeak Zilarrezko Ohorezko Mailan jokatuko du

Espainiako Eskubaloi Federazioak eginiko gonbidapena onartu eta hurrengo denboraldian Zilarrezko Ohorezko Mailan jokatuko du Sanloko emakumezkoen talde nagusiak. Denboraldi aparta egiten ari zen taldea, pandemiaren ondorioz txapelketa bertan behera laga zuten arte. Mailaz igotzea zuten helburu eta bide onetik zihoazen, bigarren postuan sailkatuta. Hori dela-eta, Espainiako Eskubaloi Federazioaren deia jaso dute, eta 2020/21 denboraldian Zilarrezko Ohorezko Mailan jokatzeak aukera izango dute. Gogora ekarri behar da 2015-2016 denboraldian maila horretan jokatzeari uko egin ziola Sanlok, ekonomikoki bideragarria ez zelako bereziki, baina oraingoan gonbidapena onartu dute.

Alkortak mailari eutsiko dio

Txapelketaren etenak mesede egin dio Sanloko gizonzkoen talde nagusiarri, Alcorta Forging Groupi: Txapelketa bertan behera gelditu zen unean azken postuan sailkatuta zegoen Alkorta Lehen Nazional Mailan, eta aukera gutxi zuten mailari eusteko, baina Espainiako Eskubaloi Federazioak erabaki du aurten ez dela jaitsierarik egongo.



Eskubaloi eskolan izena emateko epea zabalik

Sanloren eskubaloi eskolan izena emateko epea zabalik dago, eta 2009, 2010, 2011 eta 2012 urteetan jaiotako neska mutilek eman dezakete izena. Klubetik, baina, mutilei egin diete deia bereziki, eta jakinarazi dute 2008. urtean jaiotako mutilak ere hartuko dituztela, infantilen taldea osatzeko. Sanloren balioak adiskidetasuna, konpromisoa, esfortzua, taldelana eta, batez ere, jokatzen gozatzea direla gogorarazi dute. Interesatuak sanlotxo@gmail.com helbidera idatzi edo 688 735 446 telefonora deitu dezakete.



Suaren beroa.....

Ezohikoa izan da aurten San Joan bezpera Mendaron. Herriko Enparantzan piztu izan duten su handiaren ordeztu, jaia auzoetara zabaldu eta bost su piztu dituzte aurten, aurreko urteetako jendetza handiak saihesteko. Ludotekako eta gaztelekuko haurrek eta haien gurasoek parte hartu zuten ekitaldian, eta Akerbeltzekin batera egin zuten kalejiran egin zituzten bost geldialdietan, zuzeneko musika jarri zuten herriko musikariek. Azpilgoetan hasi zuten ibilaldia eta Mendarozabalen amaitu, eta Mendaroko udaletxetik bota zituzten su artifizialekin eman zioten azkena.





Arg.: Teba Fernandez



Arg.: Teba Fernandez





▶ Bartolo beer: Elgoibarko garagardoa

Bartolo Beer garagardo artisaua merkaturatu du Carlos Lahoz elgoibartarrak, eta lortzen dituen irabazien zati bat Elgoibarko musikarientzat izango da.

Ekialdeko Herriko herrietan garagardo artisauak sortzen ari diren honetan, Elgoibar ez da atzean gelditu. Carlos Lahoz elgoibartarra izan da ideia honen sustatzailea, eta Elgoibar inspirazio hartuta, Bartolo Beer garagardo artisaua merkaturatu du. Ekimenak, gainera, herriko musikariei laguntzea ere bilatzen du, jakinarazi duelako produktu honek lortzen dituen irabazien zati bat Elgoibarko Musikarien Elkartera (EME) bideratuko duela.

Sormenerako arrazoia

Carlos Lahozek garagardo autoktono baten falta somatzen zuen Elgoibarren, eta ez hori bakarrik, baita ere garagardoan espezializatutako tabernaren bat: "Ez da bakarrik Elgoibarren ez dagoela bertan ekoiztutako artisau garagardorik, kontua da ez dagoela artisau garagardoan pitin bat espezializatutako taberna bakar bat ere, horrelakoak ia herri guztietan ugaritu diren arren". Hutsune hori bete nahian, garagardo artisauak ekoizten dituen artisau baten bila hasi zen Lahoz eta Elgetako Baobeer ekoizleekin batu zituen indarrak: "Eta halaxe sortu genuen Bartolo Beer garagardo artisaua". Dagoeneko salgai dago herriko zenbait tabernatan, eta gainerakoetara zabaltzeko asmoa ere badauka.

Elgoibarko garagardoa izanik, Elgoibarrekin lehen begiradan lotzeko moduko irudia behar zuen produktuak.

Mikel Cornejok diseinatu du etiketa, eta herriak bere-berea duen irudia jarri dio: San Bartolome herriko zaindaria. Hori bai, elizan ikus daitekeen San Bartolomeren irudiak ez bezala, garagardoa eskuan eta gitarra ditu soinean, eta baita jaietako zapi gorria ere lepoan.

Zaporeari dagokionez, garagardo artisauaren munduan hasiberriak direnentzako moduko garagardoa egin nahi izan du, zapore leunduna. "Fruta tropikal zaporea du, artisau garagardoaren artean topa daitekeen suabenetakoa da, erraz edaten den garagardo bat nahi genuelako. Blonde ale erakoa da".

Musikariekin elkarlanean

Zuzeneko musika ekitaldiak sustatzeko egitasmo baten barruan, Elgoibarko Musikarien Elkartereko kideekin harremanetan jarri zen Carlos Lahoz. Beraiekin berba egin ostean, adostu zuten saldutako Bartolo Beer kaxa bakoitzetik ateratako 1,20 euro EME elkartearentzat izango dela. "Covid19 gaitzak eragindako pandemiak bete-betean harrapatu gintuen eta gure asmoak atzeratu behar izan ditugu. Eta okerragoa dena, bertan behera laga behar izan genuen egitasmoa aurkezteko antolatu nahi genuen kontzertua. Edonola ere, gure hasierako asmoarekin jarraitzen dugu, indar gehiagorekin orain, musikari eta artistak baitira koronabirusak sortu duen krisiak gogorren jo dituenak". EME barruan dauden hogeitik gora taldeen zuzeneko emanaldiak sustatzea gustatuko litzaiokela Lahoz, horien musika eza-gutzerara emateko eta herrian mugimendua sortzeko.



Oinarrizko zerbitzuak, "eskasten"

Mendaroko anbulatorioan ez dute mediku-zerbitzurik emango uztailean eta abuztuan, eta haserre daude herritarrak. Konfinamenduaren gogorrean Elgoibarko anbulatorioa etortzen egon ziren mendararrak, Mendaroko anbulatorioa serologia testak egiteko gune izendatu zutelako osasun agintariak. Eta zer diren kontuak, osasun agintariak eurek kolektiborik kalteberentzat jo zuenak hartu zuen arriskurik handiena garairik zailenean, adinekoek edo patologia ezberdinengatik sintroma edo aldiroko beste tratamenduak hartu behar izaten dituztenek egin zituztelako ostera gehien Elgoibarrera. Itzuliak ziren bere onera Mendaroko anbulatorioan eta hasita zeuden zerbitzua herrian jasotzen mendararrak, baina orain, zerbitzu murrizketaren berri izan dute.

- AINARA ARGOITIA -



Osakidetzak uda honetan ere murrizketak egingo dituela salatu dute sindikatuek, Osakidetzak berak Lehen Arretarako deseskalada plana eta udako plangintza aurkeztu berritan, eta hala ulertu dute mendarorrek ere, uztailean eta abuztuan anbulatorioan mediku-zerbitzurik ez dutela jasoko jakin dutenean. Azalpen eske, Mendaroko Ospitaleko idazkaritzarekin, Debabarrenako ESiko zuzendaritzarekin eta Osasun Sailarekin harremanetan jarri da birritan BARREN, bai eta Mendaroko Udalarekin ere, eta astelehen goizean iritsi zen erantzuna, Debabarrenako EStik, ohar bidez. Herrian bolo-bolo zebilena baieztatu zuen oharra: uztailean eta abuztuan ez dela medikurik izango Mendaroko anbulatorioan, eta medikuarenera Elgoibarrera joan beharko dutela mendarorrek. Uztailean, erizaintza-zerbitzua ematera mugatuko dira Mendaron eta 8:00etatik 13:00ak arteko ordutegian egongo da zabalik anbulatorioa. Hala ere, zerbitzurik ez dutela kendu eta ez dutela kenduko nabarmendu dute ESI Debabarrenatik. Ez dute hala ulertu, baina, herritarrek, eta astelehenez geroztik 500 lagun baino gehiago pasatu dira anbulatoriotik erreklamazio-orrria betetzera. Osasun agintarien kontra kexatzeko ez ezik, Kutxa entitate finantzarioaren kontra egiteko ere baliatu zuten BARRENek emandako aukera anbulatorioa erreklamazio-orrria betetzera joandako askok. Ez da kexa berria eta hala nabarmendu zuten kamera aurrean egindako adierazpenetan. Urtetik urtera Kutxak zerbitzu eskasagoa ematen dutela salatu zuten herritar ugariak, eta orain, koronabirusagatik Espainiako Gobernuak alerta egoera ezarri zuenetik gaur arte, Kutxak herrian ematen duen zerbitzua hutsa dela.

Anbulatorioaren inguruan hartutako erabakia arrazoitzeko bi

argudio eman dituzte osasun agintariak. Batetik esan dute normaltasun berrirako bidean, Osakidetzak osasun-arreta antolatu beharra izan duela, deseskalatze fase honetan kutsatzeak eta agerraldi berriak saihesteko. Horregatik, udako hilabeteetan "beharrezkoa" ikusi dute Lehen Mailako Arretako Unitateetan arreta sektorizatzea edo bereiztea: "Profesional batzuek arnas klinika duten pazienteak artatzen dituzte eta beste batzuek arnas klinikarik gabeko pazienteak". Eta hori eremu guztietan egiten dutela jaso dute oharrean, Mendaroko anbulatorioa barne hartzen duen Elgoibarko Unitatean ere bai. Bestetik, osasungintzako langileek oporrak hartzeko duten eskubidea aipatu dute. "Osasun-premia hauek bat egiten dute gure profesionalak merezitako oporrak disfrutatzeke beharrezekin. Horregatik, uztailean eta abuztuan aurrez aurreko arreta medikoa Elgoibarren emango zaie Mendaroko herritarrei". Horren harira esan dute aurten, bizi dugun aparteko egoeragatik, osasungintzako langileek oporrak aurreko urteetan baino denbora-tarte laburragoan hartu beharko dituztela, "COVID-19aren udazken-neguko agerraldi posible baten aurrean ondo prestatuta egon ahal izateko".

Mendaroko Udaletik jakinarazi dute Iñaki Arregi alkatea astelehenean batu zela Jauraritzako Osasun sailburuordearekin, "gaia bideratu eta mendarorren kezka eta ardurak mahai-gainera-tzeko". Arregik berak astelehenean esan zuen erantzuna positiboa izan zela eta gaia bideratzeko konpromisoa ikusi zuela. Anbulatorioa zabalik izateari "ezinbestekoa" iritzi zion alkateak, osasuna "lehenbesteko gaia" delako eta "lehen arreta, ezinbestekoa". Arregik nabarmendu zuen hartu-eman zuzena dutela Osasun Sailarekin eta lanean ari direla epe laburrean gaia bideratzeko.

KONTXITA URBIETA

“Ni orain arte ere Elgoibarrera joaten egon naiz denbora askoan ilobarekin. Ez nago konforme erabaki honekin. Gaizki gaude hemen medikurik gabe. Hemen daudenak joaten badira, besteren bat etorri dadila hona. Astean bi bider joaten egon naiz ni Elgoibarrera, kura bat egitera. Gero, gora ere bidali ninduten mokorreko kontu batengatik eta gelditu gabe ibili naiz ni joan-etorrian. Bakarrik joateko ez naiz gauza eta ilobak eraman eta ekarri izan nau beti”.



JUANITA IRIONDO

“Oso gaizki irizten diot erabaki horri. 2.000 biztanle baino gehiago gara Mendaron eta bi hilabete osoz medikurik gabe uztea ez zait bizkozkoa iruditzen. Zerbitzuak eskasten ari zaizkigu. Kutxa ere itxi zuten koronabirusagatik eta hor dago, noiz zabalduko duten aztarrenik gabe. Herria hazten ari da, gero eta biztanle gehiago gara eta zerbitzuak gutxitzen ari dira. Kutxarena ez da oraingo kontua gainera. Kutxak urtero ixten du abuztuan bi astez edo hiru astez eta jende edadetua ez da kontontzen, mundu guztiak ez dauzkalako hemen txartelak eta dirua ateratzeko. Ez dakit zer ikusi behar dugun hemen”.



FERNANDO MAZARIEGOS

“Erreklamazio-orria betetzera etorri naiz anbulatoriora, jakin dudalako uztailean eta abuztuan ez dugula medikurik izango hemen, eta edadeko jendea, nire modukoak, neuk ere 76 urte dauzkadalako, halamoduz ibili behar garelako. Aurreko egun batean Elgoibarrera joan behar izan nintzen neu ere odola ateratzeko txanda eskatzera eta ilaran ehun bat lagun zeuden nire aurretik. Ez dago eskubiderik Mendaroren ezaugarrietako herri bat zerbitzu hau gabe uzteko. Erreklamazio-orria eskatu dut eta espero dut denon indarrarekin hau gelditzea, gazte jendea konponduko delako, baina edadetuok gaizki ibili behar garelako, autobusez, trenez edo ahal den moduan Elgoibarrera joateko. Gero eta okerrago dago Osasun Publikoa. Eta Kutxa berdin. Kutxak gero eta zerbitzu eskasagoa ematen digu, edozein gestio egiteko Elgoibarrera joan behar garelako. Oso gaizki portatzen ari da gurekin”.



GREGORIO VIVES

“Mendaroko anbulatorioa itxita egon den bitartean ni Elgoibarrera joaten egon naiz. 76 urte dauzkat, gorpildun aulkian nago eta alabak eraman eta ekarri izan nau bueltan handik. Gaizki iruditzen zait uztailean eta abuztuan Mendaro medikurik gabe uztea. Ezin da herri bat horrela utzi. Nik badakit zer daukadan, baina beste asko egongo dira ez dakitenak zer duten ere eta medikuak esan beharko die ba! Ez nekien erreklamazio-orriak bete zitezkeenik, baina sinatu baldin badaiteke, oraintxe bertan sartuko naiz barrura sinatzera. Zer erremedio!”.



JOSE IGNACIO FERNANDEZ, botikaria

“Guk ere igarriko dugu, jakina. Iruditzen zait mediku-zerbitzua oinarrizko zerbitzu bat dela, herritarrek euren herrian jaso beharrekoa, eta jendearentzat endredoa dela Elgoibarrera joan behar izatea, batez ere adinekoentzat-eta. Eta are gehiago, orain ere, koronabirusaren kontu honengatik, bi edo hiru hilabetez Elgoibarrera joaten egon direnean medikuarenera edo kontsultak telefono bidez egiten. Jende asko ibili zaigu botikan galdezka noiz hasiko ote ziren anbulatorioan ohiko zerbitzua ematen, eta, orain, bazirudienean normal hasita zeudela, jakin dugu hamabost egunen buruan lehengora itzuliko garela, uztailen eta abuztuan ez delako medikurik izango hemen. Haserre dago jendea, eta ulertzekoa da. Kutxa ere ondoan daukat nik hemen, eta jendea haserre dago hilabeteetan itxita dagoelako. Bata zein bestea ezin besteko zerbitzuak dira mendarorarentzat eta ematen du ez dela hori kontuan hartzen ari”.




EUKENE GURRUTXAGA



“Amari laguntzera etorri nintzen aurrekoan hona, eta jakin nuenean udan ez genuela medikurik izango, erreklamazio-orria betetzea erabaki nuen. Orain ere Elgoibarrera joaten egon gara, adinekoak asko, koronabirusaren kontu honengatik kalteberenak zirenak. Egia da osasun munduan lanean dabilzanek hilabete gogorrek izan dituztela, baina uste dut beti egongo dela jendea lanerako prest. Inbertsio kontua da. Ez zait iruditzen pisuzko arazoia, beraz, oporren kontu hori. Iruditzen zait 2.000 biztanleko herri batek merezi duela zerbitzu hobe bat, batez ere euki dugulako orain arte eta gutxienez dagoena mantendu behar delako beti, eta ahal bada, hobetu, eskatu ordez. Kutxan ere aurrez aurreko atentzio-orduak murrizten joan dira. Ez dut ulertzen beti izan ditugun zerbitzuak eskasten joate hau. Pediatria zerbitzua ere murriztuz murriztuz joan ziren, eta galdu genuen azkenerako”.

JUAN JOSE ZABALA

“Ez dago eskubiderik. Kutxarena ere desastre bat begitantzen zait. Bizi guztian izan dugu, eta orain ixteko motiboak zeintzuk dira ba? Irabazi handienak eurek dituztenean, itxi? Pertsona nagusiak zer egin behar du? Nik hori galdetzen dut. Elgoibarrera joan? Eta joan ezina baldin badauka edo non joanik ez badauka, zer? Zer egin behar du? Taxistari deitu? Lehengoan joan zen Mendaroko 95 urteko andre bat Elgoibarrera txartel bat egitera. Hori ez al da lotsagarria? Nik ez diot topatzen horri ez aurrerik eta ez atzerik. Bizi guztian izan ditu Mendarok zerbitzu hobeak. Medikua dudan eta Kutxa itxita...nora goaz? Nora?”.



MAILO ALTUNA



“Erreklamazio-orria betetzera etorri naiz hona, ez zaidalako bidezkoa iruditzen bi hilabetez mediku-zerbitzurik ez egotea. Ni hona orain dela urte asko etorri nintzen eta beti egon da anbulatorioa Mendaron, eta iruditzen zait hori ezin dela egin. Iruditzen zait zerbitzuak mantendu egin behar direla. Denontzako kaltea da hau. Kotxea daukagunak errazago moldatu gaitezke Elgoibarrera joateko, baina pertsona nagusiek-eta zer egin behar dute? Kutxak ere asko eskatu du zerbitzua. Ni neu moldatzen naiz kutxazainean egiten egin beharrekoak, baina beste jende batek aurrez aurre atentitzea behar du, barrura sartzea. Konfinamendua hasi denez gero, uste dut itxita egon dela, eta gainera, telefonorik ez zutela hartzen askotan. Eibarrera deitu eta beste telefono zenbaki batera deitzeko eskatzen zuten, eta han ere erantzunik ez”.

▶ ENARA LARRAIN

LGTBIFOBIA ADITUA

Erizaintza ikasi zuen Enara Larrainek eta psikologia masterra egin zuen gero Euskal Herriko Unibertsitatean. Ikerlari ere aritu da, eta gaur egun, irakaslea da Tolosako Inmakulada ikastolan. Nerabeekin egiten du lan eta LGTBifobiak Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako ikastetxeetan duen eraginaren inguruan egin zuen tesia. "Nire galdera propioei erantzun nahi nien", dio. LGTBI kolektiboko kide da, eta feminista aktiboa. San Joan egunez on-line formazioa eman zuen Elgoibarko Berdintasun Sailak antolatuta.

- AINARA ARGOITIA -



"Umeei esan behar diegu normatiboa den hori fantasia dela, norbaitek sortu eta idatzia"

♦ **Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ikastetxeetan nerabeen kontra ematen den LGTBifobia aztertu duzu. Zer da ikastetxeetan topatu duzuna?**

Estatu mailan aurkitutako emaitza antzekoak, tamalez. Askotan esaten dugu hemen askoz aurrerakoiagoak garela, askoz tolerantagoak, baina emaitzek argi erakusten dute gezurra dela. 11-17 urte bitarteko 1.748 ikasleko lagina aztertu genuen guk, eta lagin hori bitan banatu genuen: batetik, heterosexualak eta bestetik, ez heterosexualak, eta ikusi genuen ez heterosexualek eskola jazarpen eta ziberbullying gehiago sufrizten zutela. Galdekaturako ikasle ez heterosexualek %68k jasan zuten ikaskideen jazarpena noizbait, eta %54k, ziberbullyinga. Ikusi genuen, era berean, ikasle ez zisgeneroetan eskola jazarpena jasan zutela noizbait ikasleen %74k eta ziberbullyinga, %48k. Beraz, LGTBI kolektiboan %50k baino gehiagok eskola jazarpena edo ziberbullyinga sufritu zuten noizbait. Era berean, ikusiarazi nahi nuena zen bullying LGTBifobikoa ez dela LGTBI kolektiboaren arazoa bakarrik, baizik eta gizarte osoarena, denoi eragiten digulako. Eta hor, lagin guztia kontuan hartuta, ikusi genuena zen ikasle guztien %60k sufritu zutela noizbait eraso LGTBifobikoren bat eta %73,4 erasoren baten testigu izan zirela noizbait. Beraz, garbi

ikusi genuen gizarte osoari eragiten dion kontua dela.

♦ **Irainak, jipoiak... Ikastetxeetan indar handiagoz ematen al dira?**

Bai. Beste autore askok ere esana dute LGTBifobia eremu guztietan sufrizten dela, baina indar handiagoarekin ikastetxeetan, eta gainera, sufrizten dituztenek ondorio larriagoak izaten dituztela, azken batean denbora luzea ematen dutelako gazteek ikastetxean, egunean gutxienez sei ordu. Ikastetxeek askatasun eremua izan beharko lukete, ikasleek beraien diren bezalakoak direla adierazteko gunea, eta ez soilik orientazio sexualari dago-kionez, baina oraindik ere mezua, mezu patriarkal eta heteronormatiboa, oso sartuta daukagu, bai irakasleen diskurtsoan, bai eskola materialean, eta baita liburuetan ere. Hezkuntza Sistema aldatu egin behar da. Otiak hasi beharko genuke ikasleek diren bezala agertzeko askatasuna izan dezaten ikastetxeetan. Ez du balio maitatzean LGTBifobiaren aurkako egun bat ospatzearekin. Feminismoa, pedagogia afektiboak eta queer pedagogiak landu behar dira, informazio asko dagoelako, baina formazio gutxi.

♦ **Arazoa identifikatuta dago. Zeintzuk izango lirateke arazo horri erantzuteko gakoak? Nondik hasi beharko genuke?**

Erreferenteak eman behar dizkiegu gazteei. 11-17 urteko

ikasleei galdetu genienean ea LGBTI kolektiboko pertsonak eza gutzen zituzten eta bereziki transexualik ezagutzen zuten %80k ezetz erantzuten zuten. Eta ez nien galdetu euren ingurune gertuaz, baizik eta orokorrean. Hori oso larria da, haurren imaginarioa hain heteronormatiboa bada, normatiba horretatik kanpoko erakarpenen bat sentitzen dutenek ez dutelako esango edo agertuko, ez direlako arruntak sentituko. Nik ere neskalaguna daukat, eta beti esaten dut gu geu garela gure erasotzaileak. Mezu heteronormatibo hori jaso dugu, hori ikasi eta barneratu dugu: ez gara gizarteak ezarritako kanonetan sartzen. Horregatik, imaginario hori handitu beharko genuke, beste ezer baino lehen. Umeei esan behar diegu normatiboa den hori fantasia bat dela, norbaitek sortu eta idatzi duena, baina beti ere hegemoniatik, gizon txuri, heterosexual... baten ikuspuntutik. Baina anitzak gara denok, eta ez bakarrik LGBTI kolektibokoak.

Mugimendu feministatik patriarkatua eraisteko eskatzen dute eta bidea hori da, baina hain dago errotua, zaila dela. Patriarkatua eraisteko denok egin behar dugu lan, ez bakarrik Hezkuntzako profesionalek. Irakasle askok sentitzen dute erremintak falta dituztela, zenbait egoerari aurre egiteko. Era berean, eta ikasleei hezkuntza sexuala eman arren, gurasoek formazio hori ez badeute, jai dago.

♦ Begiralearen figura aipatu duzu. Zertan da berezia?

Eskola jazarpenaren kontrako kanpaina asko erasotzaileetan eta biktimetan zentratu dira, baina begiralearen figura, txibatoarena, oso figura garrantzitsua da.

Zer gertatzen da LGBTIkoen kasuan? Defentsa gutxiago dutela, begirale diren horiek beldur direlako eraso salatuz gero eurek ere kolektibo hortakotzat joko dituztela eta biktimizatuko dituztela. Begiraleei ere erremintak eman behar dizkiegu jakin dezaten nola jokatu behar duten, eraso baten aurrean ezer egiten ez duena ere erasotzaile bihurtzen delako. Behatzaileek gainera zera pentsatuko dute, eraso horiek ikustean: nola izango naiz ni aske naizen bezala adierazteko, jakinda neuri ere egingo didatela hori.

♦ Gurasoak inguratuko zaizkizu formazio saioetara. Zeintzuk dira haien kezka nagusiak?

LGTBI den seme-alabarekin nola jokatu behar duten, baina nik beti esaten diet hori ezin dela kezka edo arazo izan. Egin behar duten galdera beste bat da: nire seme-alaba homofoboa al da? Nire seme-alaba erasotzailea al da? Kezkatzen gaitu gure alaba lesbiana izateak, baina hori ez da arazoa: arazoa ezin da izan sekula LGBTI kolektibokoa izatea. Arazoa beste bat da: suizidioa. Gurasoek sentitzen dute ez dutela erremintarik seme-alabei formazio egokia emateko horren inguruan, batez ere seme-alaba transexualak dituztenek. Egia da kezka handia dutela gurasoek, baina egia da, era berean, konpromiso falta bat ere badutela askok: 'Eskolan hitz egingo diete horren inguruan' en-

tzuten diegu askori. Irakasleen esku uzten dute hezkuntza hori, baina eskutik emanda egin beharreko zerbait izan beharko litzateke. Gurasoek ere kontzientzia hartu behar dute ikastetxeetan gertatzen diren erasoez. Suizidioak LGBTI kolektiboan zeukan prebalentzia ikusteko ikerketa bat egin zuten estatu mailan eta ikusi zuten kasuen %18k beren burua hiltzeko saiakera egin zutela, behin baino gehiagotan. Beraz, ez gaitu kezkatu behar seme-alaba gay edo lesbiana izateak, sexu berekoak gustatzeak ez gaituelako egiten suizidiorako gaiago. LGBTI izateagatik jasaten ditugun eraso guztiak, egunero jasaten ditugun irain, mespretxuzko begirada, gutxiespen mezu eta bestelakoek handitzen dute suizidiorako prebalentzia. Badago jende bat halakoen artean indartsuago agertzen dena, baina beste jende askok ezin ditu eraman, ez duelako sostengurik inguruan.

♦ Zeintzuk dira homofobiaren ezaugarriak? Eta LGBTI kolektiboaren barruan zeintzuk dira kalteberenak? Zergatik?

Ezaugarriak hiru dira, batez ere: sostengu eza da bat. Batetik, biktimia izaten ari denak beldurra izango du irakasleari edo gurasoei esateko, azalpenak eman beharko dituelako. Gero, gainera,

mezu heteronormatiboa barneratua izango duenez eta errudun sentituko denez, ez du laguntzarik eskatuko eta begirale direnek ez diete lagunduko. Biktimak eurak izango dira, gainera, euren buruen lehenengo erasotzaileak eta justifikatu egingo dituzte erasoak. Horregatik, itzaletan mantenduko dira, ahalik eta atentzio gutxien deitzeko. Ikerketa batek erakutsi zuen LGBTIfobiaren biktimia ziren ikasleen %67k ez zutela laguntza eskatu, ez zutela

ikastetxeetan kontatu. Normalizazioaren kontua nabarmendu nahiko nuke. Jende askok uste du nerabezaroan eta adin tarte batean *marica* edo *maricón* moduko irainak normalak direla, eta irakasleek-eta -eta neu ere sartzen naiz hori ez diete duten garrantzia ematen. Beharbada, irain arrazistei garrantzi handiagoa ematen diegu denok ere. Kolektiboaren barruan, pertsona transexualak dira kalteberenak, ikusezinenak direlako. Nerabeei oraindik asko kostatzen zaie ulertzea zer den orientazio sexuala eta zer den identitate sexuala, eta horregatik asko ez dira eroso sentitzen pertsona transexual baten aurrean, baina hori ezjakintasunagatik da. Ikusi da, era berean, gay direnek lesbiana direnek baino eraso gehiago sufrizten dituztela, baina horrek badu azalpena: gure gizarte hau androzentrista da; maskulinitatea da protagonista eta mutil homosexualak dira maskulinitate horren lehen mehatxua. Eta baita lesbianak ez direlako aintzat hartzen ere. Bi emakumeren arteko harremana ez da errealizat hartzen ez dagoelako gizonik tartean, baina ez dute trabarik eta listo.

♦ Zerbait gehitu nahiko zenuke?

Nik beti esaten dut normalitate kanonaren barruan sartzen diren pertsonak gutxiengo bat direla; gehiago garela gu, gainerako guztiak. Beti mantendu nahi gaituzte itzaletan, baina garaia da geuk hartzeko hitza.

“Normalitate kanonaren barruan sartzen direnak gutxiengo bat dira; gehiago gara gu, gainerakoak”



Neurri asko, ume gutxi

Astelehenean ekin zioten jardunari Elgoibarko eta Mendaroko haurreskola publikoetan, eta astebete aurretik ireki zuen Elgoibar Ikastolako haurreskolak. Babes neurri "guztiak" hartuta ekin diote lanari, baina ume gutxirekin. Irailerako proba moduan hartu dute gehienek oporren aurreko epealdi hau. Elgoibar Ikastolak, bestalde, zaintza zerbitzua eskaini du HH2tik HH4ra arteko umeentzako.

- AINHOA ANDONEGI / ASIER ORBEA -

Ez dugu ohiko irudia aurkitu haurreskoletan. Martxan ari dira, baina koronabirusaren eraginez, oso bestelakoa da orain euren jarduna: hezitzaile eta gurasoak maskara jantzita, umeak oinutsik eta gurasoak, aldiz, oinetakoak babestuta. Sarreran tenperatura hartzen diete, eskuak gel hidroalkoholikoarekin garbitu behar dituzte, eta erraz garbitzen diren jostailuak bakarrik atera dituzte umeentzat. Neurri asko eta ume gutxi, horixe da une honetan haurreskoletako irudia. Mendaron bost ume itzuli dira haurreskolara, eta Elgoibarko haurreskola publikoan zazpi ume dituzte une honetan. Ikastolan, berriz, hamar umekin hasi dira. Elgoibar Ikastolak, bestalde, zaintza zerbitzua eskaini du HH2tik HH4ra arteko umeentzat, eta 33 ume eman dute izena. Elgoibarko ikastetxeetan izan gara eta arduradunek eman digute egoeraren berri.

MARIA PILAR BERISTAIN, Elgoibarko haurreskola publikoa



"Hainbeste denbora etxean egon ondoren pentsatzen genuen ez ginela oraindik lanean hasiko, baina aukera etorri zaigu eta egia esanda, gogotsu ekin diogu jarduerari. Gurasoei esan nahi diegu gure eskolako baldintzak ezin hobekak direla: eskola oso handia da, espazio zabalak ditugu, leihoz inguratuta dago dena eta oso ondo aireztatuta dago. Ume gutxirekin hasi gara, gela batean lau ume daude, eta beste batean, hiru. Familia asko beste moduren batean antolatu dira alarma egoeran eta horrela jarraitzea erabaki dute, eta batzuek seguruenik beldurra ere izango dute. Baina gu ilusioz hasi gara, eta lehenengo eguna oso-osoa polita izan zen. Babes neurriak hartu behar izan ditugu: gel hidroalkoholikoa daukagu sarreran, oinetakoak babestekoak, tenperatura hartzen zaie kanpotik etortzen diren guztiei, eskuak sarri garbitzen ditugu eta guraso eta irakasleek maskara erabiltzen dugu. Garbitasuna ere areagotu egin dugu, eta jostailuak ere egunero garbitzen ditugu. Jostailu gutxiago ateratzen ditugu, eta egun batean erabiltzen direnak hurrengo egunean ez ditugu ateratzen, garbitu egin behar direlako. Erraz garbitzen diren materialarekin eginiko jostailuak lehenetsi ditugu eta erraz zikintzen direnak ere gordeta ditugu badaezpada. Dena dela, umeak dira eta ahalik eta normaltasun handienarekin jokatu behar dugu. Gauza bat da prebentzioa eta beste bat histeria, eta ez dut uste histeriko jarri behar garenik. Gu lasai gaude, eta lanerako baldintza ezin hobekak ditugu. Egoera honek balioko digu irailerako probaldi moduan".

OIHANA AGIRREGOMEZKORTA, Ikastolako haurreskola



“Haurreskolak irekitzeko baimena eman zutenean hasi ginen lanean. Ekainaren 8an etorri ginen ikastolara, eta lehenengo lana haurreskola zerbitzua jasotzen zuten familiekin harremanetan jartzea izan zen. Galdetegi bat bidali genien euren beharrak ezagutzeko, eta horren arabera, lanean hastea erabaki genuen. Zerbitzu murriztagoa eskaintzen dugu, eta une honetan arratsaldeko zerbitzurik ez dugu ematen. O urtekoak 16tik lau hasi dira, eta urte batekoak 34tik sei. Hamar umerekin hasi gara, beraz. Familia asko aiton-amonekin moldatu dira, beste batzuek zaintzaileen bat hartu dute, eta bagenekien urte sasoi hau izanda, ez zirela ume asko etorriko. Ardura eta kezka puntu bat bageneukan berriz martxan hasteko, baina esperientzia oso positiboa izan da, bai guretzat eta baita umeentzat ere. Umeak hiru hilabetez egon dira etxean, gurasoekin ordu asko pasatu dituzte eta horregatik egokitzapena egin behar izan dute berriro. Gu ere maskarekin garbitza, ez dute gure aurpegiko espresioa ikusten, eta uste genuen horrek ere errepairoa

emango ziela umeei, baina gure harridurarako, umeak oso ondo moldatu dira. Jende pilaketak saihesteko egokitzapena txandaka egin zuten umeek lehenengo astean, eta aste honetan normaltasunez ari gara lanean. Espazioak adinka bereiztu ditugu, eta umeak ez ditugu nahasten. Hezitzaileak ere beti berdinak egoten gara talde bakoitzarekin. Sarreran gel hidroalkoholikoa daukagu eskuak garbitzeko eta oinetakoak babestekoak, helduak derrigorrez maskara jantzita etorri behar dira, umeak oinutsik edo hemen erabiltzeko etxeko zapatilekin sartzen dira eta egunero tenperatura hartu behar zaie hona etorri aurretik. Ume bakoitzak bere kutxa bat dauka kanpoaldean bere gauza pertsonalak uzteko, eta pardela aldatzeko koltxoia erabili eta botatzeko paper batekin babesten dugu. Jostailuak eta altzariak ere etengabe garbitzen ditugu, eta lurrean erabiltzen ditugun mantak ere egunero garbitzen ditugu. Lan gehiago daukagu, baina ikasturte berrirako prestatzen joateko aukera ona izan da guretzat horrela hastea”.

MIKEL JUARISTI, Ikastolako zaintza zerbitzua



“Ekainaren 7an atera zuten dekretuak baimena eman zuten kontziliazioari begira haurreskolak eta HH2ko gelak zabaltzeko, eta bestalde, aisialdi eskaintza emateko aukera ere jasotzen zuten dekretuak. Elgoibar Ikastolak normalean LHra arteko zaintza zerbitzua eskaintzen du, baina Atxutxia maika aisialdi taldeak HH5etik aurrerako eskaintza egin duenez, guk aurtien HH3 eta HH4ko umeei zabaldu diegu zaintza zerbitzua. Haurreskolako umeez gain, 33 ume ditugu HH2tik HH4ra bitartekoak, baina gehienak 2 urtekoak dira. Egia esanda, Atxutxiamaikak 5 urtetik aurrerako eskaintza egin duenez aurtien, espero genuen 3 eta 4 urteko ume gehiago etorriko zirela gurera, baina familia askok orain arte moldatu diren bezala jarraitzea erabaki dute. Hala ere, pozik gaude, talde oso politak sortu direlako eta umeak pozik ikusten ditugulako, eta uste dugu egoera honetan lanean hasi izanak balioko digula ikasturte berrirako esperientzia hartzeko. Garbi geneukan ezin genuela aurreko urteetan bezala jokatu, eta espazioak moldatu egin behar

izan ditugu. Esaten dutenez birusa errazago kutsatzen da barruetan, nolabait esateko barruko gelak kanpora atera ditugu. Horrez gain, umeak adinka bereiztu ditugu espazioetan, beraien artean nahastu ez daitezten. Talde bakoitzak kanpo espazio bat erabiltzen du, eta zaintza zerbitzua amaitzen den unean bertan mantenukoak hasten dira lanean, espazio guztiak garbitu eta desinfektatzeko. Jostailu eta materialak ere ume bakoitzak bereak dauzka, eta ez dituzte konpartitzen. Ume bakoitzak bere mahaia dauka lantxoak egiteko, bere kutxa propioa dauka bere gauzak gordetzeko, talde bakoitzak bere komuna erabiltzen du eta hamaitakoa ere bakoitzak berea jaten du, beste inork ukitu gabe. Egoera berezia da, hezitzaile guztiok maskara erabiltzen dugu uneoro, eskuak sarri garbitzen ditugu eta kontu handiz ibiltzen gara”.

LANA.....
Eskaerak

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan.
☎ 631 121 148

Haur Hezkuntza eginda daukat, euskalduna naiz eta haurrak zaintzen egingo nuke lan udan.
☎ 689 618 820

Adinekoak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko prest nago. Esperientzia daukat eta berehala hasteko prest.
☎ 632 687 583

Adinekoak zaintzeko eta etxeko garbiketarako lanetan aritzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Erabateko prestutasuna.
☎ 631 470 600

Adinekoak zaintzeko eta etxeko garbiketarako lanetan aritzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan.
☎ 631 895 039

Adinekoak zaintzeko prest nago, goizez. Euskalduna naiz.
☎ 617 571 210

Edozein lan egiteko prest nago, goizez 8:00etatik 11:00etara eta asteburuetan edozein orduan.
☎ 632 893 515

Eraikuntzan, adinekoak zaintzen edo garbiketarako lanetan jardungo nuke.
☎ 632 600 522

Haur Hezkuntzako ikaslea udan umeak zaintzeko prest. Euskalduna.
☎ 684 221 398

Udan umeak zaintzeko prest nago. Euskalduna naiz.
☎ 687 792 418

Garbiketarako lan egiteko edo adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.
☎ 612 493 913

Adinekoak zaintzeko, garbiketarako edo base-rikorako lan egiteko prest nago.
☎ 631 820 135

Adinekoak zaintzeko prest nago. Gauzez eta asteburuetan ere bai.
☎ 689 003 537

Adinekoak zaintzeko eta garbiketarako lan egiteko prest nago.
☎ 643 115 699

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lan egiteko prest nago. Arduratsua naiz.
☎ 685 386 485

ETXEBIZITZAK.....
Etxea alokatzen dut Kantabriar, Valle de Ruesga herrian, laredotik 13 kilometrotara. 4 logela, eta bi komun. Zortzi lagunentzako modukoa.
☎ 688 615 600

BESTELAKOAK.....
Lur-zati bat erosi nahiko genuke baratze bat eta txabola txiki bat egiteko. Elgoibarren bertan, edo, Elgoibartik aparte badago ere, ez zaigu inporta. ☎ 696 098 042

Lur saila erosiko nuke, Elgoibarren edo inguruetan. ☎ 620 710 139

Sigmako elkarte gastronomikoak bazkideak behar ditu. Informaziorako: <https://eulogio-estarta.blogspot.com/> edo <https://www.facebook.com/eulogioestarta/>

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€ . Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Euzkoako Enpresa Administrazioaren Erakunde Nazionala



ROSA Ma PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2

Nire komunitatean, irailerako bilera bat antolatzea pentsatzen ari dira. Obren gaiak landuko direnez, jakin nahi nuke ea lehendakariari edo jabe bati eskuordetze-idatzi bat aurkez diezaiokean, gai-zerrendako puntu bakoitzean oharrak edo zehaztapenak eginez, nire botoa arrazoituz. Horrela, ez nuke batzarrerara joan beharrik izango, eta nire iritzia Jabeen Batzarrari helaraz niezaioke, etxejabe moduan.

Jakina, aukera hori baliozkoa da; izan ere, arrazoi pertsonalengatik batzarrerara joan ezin diren jabeek beren iritzia eta bozketaren zentzua jasota uzten duten formuletakoa bat da. Gogoratu behar da jabeen batzar batera joateari dagokionez aukera desberdinak daudela. Jabeen batzarra egiten denean, gerta daiteke jabea bera agertzea batzarrerara, jabeak bere ordezkaritza hirugarren bati ematea, jabeak idatzi bat ematea lehendakariari eskuordetzea aitortuz edo beste jabe baten esku uztea bere botoa. Ez da ahaztu behar eskuordetzea lagatzen duen jabeak bere idazkian jaso dezakeela puntu bakoitzean bozkatzen duena; horretarako, idazkian berriaz adierazi behar du, eta gai-zerrendako puntu bakoitzean jarriko du bozkatzen duen edo ez, zer bozkatzen duen edo abstenitzen den.

Gomendioa. Garrantzitsua da Jabeen Batzarrerara joatea, pertsonalki edo ordezkaritza utziz. Izan ere, funtsezkoa da jabeak guztiek deialdian adierazitako gai-zerrendako puntuei buruzko iritzia ematea.



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Gorka**, ekainaren 24an 6 urte bete zenituelako. Muxu potolo bat familiakoen eta, bereziki, Naroren partez.



Zorionak, **Edurtxo!** Uztailaren 1ean, 6 urte! Ondo ospatu eguna. Muxu handi-handi bat.



Zorionak, **Maddi**, astelehenean 9 urte egingo dituzuelako. Muxu handi bat lagunen partez. Ospatuko dugu behar den bezala.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€.
Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.

KALITATEZKO KOLTZOIEK GARAI ZAIENETAN ERE LOA GOZATZEN DUTELAKO
San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

BARREN sare sozialetan

facebook.com/barrenaldizkaria

twitter.com/barreneus

instagram.com/barrenaldizkaria

LG 70UM7450PLA TELEBISTA

799 €

- Smart TV, adimen artifizialarekin
- 10 biteko Quad Corede prozesadorea
- HDR 10 Pro y HLG aukerarekin bateragarria
 - DTS soinu birtuala; X Full 360°
- Bluetooth 5.0 bateragarria, Google/Home-n parte hartzen dutenek
 - A energia-mota ● 3HDMI
 - 2 USB ● USB grabagailua

MILARBIRE
Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

26 BARIKUA

19:00 C.D. Elgoibarko bazkideen urteko batzarra. Olaizaga kiroldegian. Bazkide bakoitzak bere maskara eraman beharko du.

20:00 Elkarretaratzen dinamikoa: 'Izan bidea'. Sarek antolatuta, Kalegoen plaza-tik Maalaraino.

20:00 Kontzertua: Ion Gurrutxaga eta Urbil Artola. Makina Erremintaren Museoa. Maskara eraman behar da, nahiz eta beharbada ez den erabili beharko.

1 EGUAZTENA

19:30 Santanak antolatzeko jai-batzordearen bilera. Lagun Betikoak elkartearen lokalean.

3 BARIKUA

21:30 Bideo foruma: 'Kafe Irlandes'. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Antolatzailea: Haizea emakume taldea.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-22:00			Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)		
26 BARIKUA	27 ZAPATUA	28 DOMEKA	29 ASTELEHENA	30 MARTITZENA	1 EGUAZTENA	2 EGUENA	3 BARIKUA
Egunez Yudego	Egunez *Fernandez *Arriola	Egunez *Fernandez	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez *Oruesagasti
Iluntzean Yudego	Iluntzean ---	Iluntzean ---	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Barrenetxea

* Fernandez:
Herriko enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00
Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar)
943 206 984



IV. URTEURRENA

Pedro Aguinaco Isusi

2016ko uztailaren 1ean hil zen, 79 urte zituela.

Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan.



XXV. URTEURRENA

*Maria Arocena
Unzueta*

*Rosa Riaño
Arocena*

1995ko ekainaren 25ean hil ziren. Haien oroimenez XXV. urteurreneko meza izango da, domekan, ekainaren 28an, 11:30ean Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretanoi aldeztu aurretik eskerrak.





Mariasun Mendikute Zubiaurre

2020ko apirilaren 21ean hil zen, 71 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta mezara agertu izana ere.



Ana Maria Etxabe Ostalaza

2020ko apirilaren 25ean hil zen, 71 urte.
Haren oroimenez hileta meza egingo da,
eguztenean, uztailaren 1ean, 19:00etan,
Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.



Margarita Aranberri Mendizabal

2020ko ekainaren 17an hil zen, 88 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta mezara agertu izana ere.

***Udaberriko hostaizka
beti ikusgarri
zuzenki, baiña goxo
famili zaindari
Manolokin batera
duoan kantari
bihotzian zaittugu.***

Amama Margari



Emilio Esteban Yagüe

2020ko ekainaren 22an hil zen, Burgosen, 76 urte zituela.

***Ni hil naiz, baina nire maitasuna ez, eta zerutik maitatuko
zaituztet lurrean maite izan zaituztedan moduan.***

***Berriz elkar ikusiko dugula pentsatzeak gure mina arintzen du,
eta itxaropenez betetzen gaitu.
Ez zaitugu inoiz ahaztuko.***

Familia





EUSKARA ALA EZKARA ELGOIBARREN?

Jardunaldia. Urriak 3, larunbata

**Elgoibarko euskalgintzaren eta kulturgintzaren
DIAGNOSI BATERATUA egitera goaz.**

- ✦ *Zein dira indarguneak?*
- ✦ *Non daude ahulguneak?*
- ✦ *Zer dago hobetzeko eta egiteko?*

80 lagun inguru bilduko gara.

Elgoibarko euskalgintzako eta kulturgintzako jendea.

Parte hartu nahi al duzu zeuk ere?

Informazio gehiago eta izena emateko (uztailaren 24a baino lehen):

elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus / 943 741 626

euskara@elgoibar.eus / 943 744 366

